

FUNTSEZKO JARDUERAK

Behin funtsezko baliabideak finkatuta dauden, bakoitzak egin behar dituen jarduerak finkatu behar ditugu. Taldekide bakoitzak dituen gaitasun guztiak modu egokienean kudeatu eta aplikatu beharko ditugu, bakoitzak modu eraginkorrean egingo dituen jarduera eta lanak zehazteko. Antolaketa aproposa egitea ezinbestekoa da gure enpresak arrakasta izateko.

Hasteko, arestian aipatu bezala, bezeroek webgune bat izango dute eskuragarri gure proiektuaren berri izateko eta zalantzarik egongo balitz bertan argitzeko. Bezeroekiko harremana bermatu ahal izateko, hitz jario egokia eta errespetua duen lankide bat beharko dugu, bezeroari behar duenean laguntza eskaintzeko. Kasu honetan, Leire arduratuko da lan honetaz, adetasunez eta errespetuz hitz egiteko garaian oso bertutetsua baita eta edozein arazori aurre egiteko gai izango baita.

Argi dago, enpresaren irudi publikoa eta itxura egokia izateko, publizitatea on bat egitea ezinbestekoa dela; horretarako, arlo honetan trebea den lankide bat beharko dugu. Naroak marketinaren inguruan ezagutza zabala du eta sare sozialak oso ondo maneiatzen ditu. Gure produktuaren argazkiak eta informazioa zabalduz, gure enpresa jende askorenganaino iristea eskuratuko dugu.

Bestalde, salmentek gora egin dezaten, diseinua bezeroentzat erakargarria izatea ezinbestekoa da. Horretarako, Unairen diseinuaren arloarekiko gaitasun izugarria aprobetxatuko dugu, bere proiektuari esker eskuratu duen esperientziaz baliatuz.

Horrez gain, Unairen plastikoaren birziklapen desegokiaren arazoari aurre egiteko inplikazioa ezinbestekoa izango zaigu panpinen sorkuntza aurrera eramateko. Horregatik, Ikastolen Elkarteko Euskal Herriko ikastoletan plastikoa jasotzeaz arduratuko da,

Azkenik, Leire diruaren kudeaketaz arduratuko da. Funtsezko baliabideen atalan aipatu dugun bezala, alor ekonomikoan trebetasun handia dauka, beraz, enpresa batek arrakasta izan dezan, erabaki ekonomiko egokiak hartzea oso garrantzitsua denez eta esperientzia zabala duenez, Leire arduratuko da enpresaren administrazioa egokia izatez ziurtatzea. Horretarako, salmentak ikertuko ditu, beti enpresaren ikuspegitik onuragarria den hori erabakiz.